

Joseba Lakarraren zuzendaritzapean, EHUko filologo talde batek Larreako Jaunaren eskuizkribuaren sakoneko lehen azterketa amaitu berri du; 'Lazarraga.com' dominioan jarriko dute laster

# Lazarraga askatzen

Alberto Barandiaran Iruñea

Joan Perez Lazarragakoaren eskuizkribua laster baino lehen aztergai izango da *Lazarraga.com* domeinuan, Blanca Urgell, Gidor Bilbao, Ricardo Gomez eta Joseba Lakarraren taldeak apailatuta. Ez da behin betiko edizioa izango, ez edizio kritikoa, lehen bertsio finkatua baizik, sinetsita, hainbat hilabeteko lanaren ondorioz, Gipuzkoako Diputazioak 2004an erosi zuen eskuizkribuaren lehen interpretazioa egiteko moduan daudela. Hau da, testua osorik irakurgai eman dezaketela, idatzitakoa ulertzeko hainbat oharrek, eta irakurketa horiek nola justifikatu daitezkeen azaltzeko argibideekin.

«Testua horrela, hutsean, hotz, lehenagotik emana dago» azaldu du Joseba Lakarra. «Aurrerape-na izan behar du testua bera ego-kiago eta justifikatua ematea mailarik apalenean, nolabaiteko azalpen batekin. Nik txinera oso ondo ulertzen dut, txinera da, baina ez dut txineraz idatzitako testu batek dioena ulertzen. Eta aurreko edizioekin bati baino gehiagori horixe gertatu zitzaion, eta okerbideak gertatu dira».

## Edizioen zuloak

Arazoa zera da, Lazarragaren eskuizkribua erosi eta berehala, faksimilea sarean jarri zutela. Eta, jarri eta berehala, lehen transkribapenak agertu zirela. Bat, Iñigo Landak egina, sarean eskegi zuten berehala, *armiar-ma.com*-en. Bestea, Patri Urkizuk egin zuen, Dianeaa eta Koplak izeneko edizioaren bidez. EHUko Filologia Fakultateko irakasle taldearen lanak aurreko bi edizioen zuloak betetzera dator.

«Landaren edizioa zintzoa izan zen» azaldu du Gidor Bilbaok, «esan zuelako zer eskaintzen zuen. Ulertzen ez zuena onartu zuen. Baina besteak ematen du azaltzen ez duena ez dela azaldu behar. Eta institutuko irakasle batek hartzen badu Urkizuren edizioa, hamar lerrotik bost edo zazpi ez du ulertuko, eta Urkizuk ez dio soluzionatzen, eta ez dio ohartarazten berak ere ez duela ulertzen. Eta irakasleak pentsatzen du tontoa dela. Hori da argitu behar duguna. Ulertzen duguna hau da, eta hau da ulertzen ez duguna».

Martxotik hona, bilera asko egin dituzte lau irakasleek. Testu

nagusia zatikatu, eta elkarren artean banatu dute. Nork bere interpretazioa egin ondoren, elkarrekin jarri dituzte emaitzak. Denen artean eztabaidatu eta zuzendu eta gero, eta Joseba Lakarraren azken begirada gaindituta, ozenki irakurri dute testua. Hori egin arte, ez dute zatia ontzat eman.

Lazarragarena ez da horrela aztertzen duten lehen testua. Monumenta Linguae Vasconum (MLV) ikerketa proiektua 2002an abiatu zen EHUko Hizkuntzalari-tza eta Euskal Ikasketak Sailaren barruan, euskal testuen edizioa eta azterketa egiteko, baina Lazarragaren eskuizkribua orain arteko lanik konplexuena izango da, «bereziki garrantzitsua delako, eta bereziki zaila delako».

## Ernazimendua, euskaraz

Madrilgo antigualeko etxe baten aurkitutako testu multzoa euskal filologoentzako ametsa zen. XVI. mendeko testu bat, laiko baten



Hamar lerro irakurrita ere, nahikoa da jakiteko horrelako ezer ez dugula euskal tradizioan»

**JOSEBA LAKARRA**  
Euskal Filologian katedraduna

«Landaren edizioa zintzoa izan zen, esan zuelako zer eskaintzen zuen»

**GIDOR BILBAO**  
Filologia Klasikoko doktorea

eskutik, eta giro hartako poesiak eta zaldun liburuaren airearekin. Berpizkundea, euskaraz, batek baino gehiago azpimarratu zuen bezala. Gainera, garai hartan Araban egiten zen euskaraz emana. Historikoki, literarioki, filologikoki, pagotxa.

Oraingo edizioak ez ditu egileaz, testuaz edo testuaren atzeko istorioez zalantza guztiak uxatuko, baina bidea emango du zalantza horiek argitzen joateko.

Bitartean, azterketak testuaren barne bizitzaz ohar interesga-

rriak utzi ditu. Lau irakasleak ia segur dira gutxienez bi esku dagoela testuaren atzean. Bat, Lazarragarena berarena, edo bere kopiagilearena; bestea, Martin Bikuñarena. Gehiago? Oso litekeena da.

«Orrialde batean bi testu agertzen dira» jarri du, adibiderako, Lakarrak. «Baina ahapaldiren batek lehen dagoenaren aldaera bat ematen du. Zergatik? Egilea diferentea da, berantiarra? Pertsona bera da, baina aurrerago gauza diferenteak sartu ditu? Edo egile berarena da, baina kopiatu ditu oinarriko testuak eta berak egin ditu aldaketak? Aukera asko daude».

Testuaren balioaz ez dago dudarik, nolana ere. «Hamar lerro irakurrita ere, nahikoa da jakiteko horrelako ezer ez dugula euskal letren tradizioan» dio Euskal Filologian katedradunak. «Paga zitekeen ordaindu zutena eta gehiago».

Eta, hala ere, garaian ez zen inprentara iritsi. «Pleguetan, txori paperetan, litekeena da» dio Bilbaok. «Baina koaderno bera, orain ezagutzen dugun bezala, ez dira orduan argitaratzekoak». Baina Lazarragak idatziko zuen zabaltzeko, ezta? «Nik ez nuke esango» argitu du Lakarra. «Jendeak ez zuen horretarako egiten. Inprentara gauza garrantzitsuagoak bidaltzen zituzten. Kronikak, nire herria zurea baino garrantzitsuagoa zergatik den azaltzeko kontaketa, horrelako gauzak. Inprentara iritsi zirenak baino ehun bider gauza gehiago idatzi ziren».

## Lazarraga protagonista

*Euskal testuaren argitalpena: gaurko ikuspegiak, etorkizuneko ikuspegiak*, jardunaldien barruan, Lazarragaren testuari buruzko azterketa aurkeztuko dute Urgell, Bilbao, Gomez eta Lakarraren taldeak Deustuko Unibertsitatean, abenduaren 12an. Hori baino lehenago, Lazarraga bera izango da protagonista, non eta Gasteizko Artium Museon. *Lazarraga, arabar poeta (1547-1605)* izenburupean, Larreako



Joseba Lakarra (ezkerrean) eta bere lan taldea. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

jaunaren lanaren alderdi literarioak, historiakoak eta filologia-koak aztertuko dituzte hainbat adituk. Gaur, Gidor Bilbaok Lazarragaren ediziorako bidea izeneko hitzaldia emango du, eta Koldo Zuazo hizkuntzalariak Arabako euskarari buruz jardungo du. Ondoren, poema irakurketa izango da, Gerado Markuletaren, Gidor Bilbaoren eta Olatz Zugastiren eskutik. Bihar, Kike Fernandez de Pinedo eta Jabi Otsoa de Aldak *Larreako sorginak eta arabar euskal elebarrak Lazarragaren garaian* solaldia aurkeztuko dute, eta Joseba Intxaustik, berriz, elite

euskaltzaleak Lazarragaren bezperan izeneko gaiari helduko dio. Eta Pruden Gartzia hitzaldia emango du, *Zazpi gauza jakin beharrekoak Lazarragari buruz* izenekoak.

Abenduaren 11n, ostegunarekin, Lazarraga eta literaturaren eguna izango da, Julen Arriola-bengoa eta Iñaki Aldekoaren parte hartzearekin. Ondoren, antzerkia eta bertso trama dago iragarrita: *Zugan ereingo den ene hazia (Lazarraga asmatuz)*. Jose Goikoetxea izango da tramalaria eta hauek izango dira bertsolariak: Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Jon Maia.



## AZKOITIKO UDALA

IRAGARKIA

Udalbatza Osoak, 2008ko abenduaren 1.2an egindako bilan behin behineko izaeraz onartu ditu Aurrekontu Propioak, Azkoitia Lantzen S.A. Sozietate Publikoa, Zubi-Aurre Udala Kirolegia Fundazio Publikoa eta San Jose Egoitza Fundazio Publikoaren Aurrekontuak osaturiko 2009 ekitaldirako Aurrekontu Orokorra. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan eta indarrean dauden beste arauak ezarritakoak betez, ondorengo arauen arabera jendeari ezagutzera ematen zaio:

- a) Dokumentua jende aurrean dagoen lekua: Kontuhartzailak.
  - b) Aurrekontua aztertuko eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea: Hamabost lanegunetakoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitaratu eta ondorengo lanegunetik hasita.
  - c) Honako hauek jarritako erreklamazioak: F.A.eko 17.a artikuluan eta F.D.ko 21.1 artikuluan aipatutako interesatuek nahiz akordioaren aurka botatu zuten kideek.
  - d) Aurkapen zioak: F.A.eko 17.2 artikuluan eta F.D.ko 21.1 artikuluan adierazirikoa nahiz antolamendu juridikoa urratzea.
  - e) Aurkeztuko bulegoa: Udaletxearen sarrera erregistroa, bulego orduetan.
  - f) Errekurtsoa aurkezteko organoa: Udalbatza Osoa.
- Adierazirikoa informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, aipatutako Aurrekontu Orokorra behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartzeko beharrik gabe.

Azkoitian, 2008ko abenduaren 3an. ALKATEA,



# INTXAURRE

Balbino Garaitonandia, 1 - DURANGO